

Munduko ogibiderik zaharrena

Espanian ez dago estatistika ofizialik prostituzinoari buruz, baina, dana dala, prostituitutako pertsonak 300.000 eta 400.000 artean dirala uste da, ia danak emakumeak –eta gehiengo zabala etorkinak- eta %90a emakumezkoen salerosketaren barruan dago. Espainia, munduan prostituzino gehien daben herrialdeen artean hirugarrena da, Eurostaten arabera, egunean 5 miloe mobiduten ditularik. Gizonetzkoena da eskarien %99,7a: Nazino Batuen 2010ko txostenaren arabera, gizonetzkoen %39ak ordaindu egin dau sexu-harremanak izateko.

Baina prostituzioaz berba egiten dogunean, prostituitutako emakumez bakarrik jarduteko arriskua dogu. Ego-kiagoa litzateke *prostituzino-sistemaz* hitz egitea, hau da, Rosa Cobok esango leuken lez, patriarkatuaren, neoliberalismoaren eta arrazakeria-klasismoaren arteko alkargunean dagoan sistemaz. Hiru eragile nagusiri esker, hau da, jentea prostituitzen dabenen, proxeneten eta emakumezkoak prostituta izatera bultzatzen dituan egundoko ahultasunean jarten dabezan egiturazko arazoak betikotzen dituan Estatuaren esku-hartzeari esker, arintasunez funtzionatzen dauan makineria.

Sistema hau ikuspuntu orokorretik hartu ezker, erraz jabetu gaitezke prostituzinoaren, sexu-esplotazioaren eta personen salerosketaren arteko lotura eztabaidaezinaz: prostituzino-sistema emakumezkoen salerosketatik elikatzen da (lehengaia jadestearen haritik) sexu-esplotazioa helburutzat hartuta, bizirik irauteko eta prostituzinoaren eskariari eran-tzuteko. Sistema honek emaku-mearen gorputza eskuratzeko eta merkataritza-gai bihurtzeko sexu-eskubidea bermatzen dau. Hona, horren zantzu nabar-menak: eskatzaile gehienak gizonak dira; prostituitutako pertsona gehienak emakumeak dira (asko eta asko erabateko ahulezian dago) eta jarduera honek egundoko irabazia eragiten dau.



Egilea: Ben - @BenBrutalplanet / Iturria: la-politica.com


Hain zuzen be, prostituzinoaren, sexu-esplotazioaren eta salerosketaren arteko lotura hori dala-eta, errealitate bi horreek bereizita hartu eta prostituzinoa arautu eta salerosketa zigortu gura daben proposamenek bide emoten deutse prostituzino-sistemari bere nahierara gailendu daiten. Alemania edo Herbehereak bezalako herrialdeetan, non arauketaren aldeko politikak dabezan (prostituzinoa emakumeek askatasunez aukeratzen daben sexu bidezko lantzat hartzearen eta bere lan-arautzearen aldekoak dira), ez dabe sexu-esplotaziorako emakumeen salerosketa gixtizerik lortu eta, hain zuzen be, legeak horren jazarpena zaildu egiten dauala ikusi dabe. Politika abolizionistak dabezan Norvegia edo Suedian (prostituzinoa emakumeen aurkako egiturazko indarkeriatzat jotzen dabe, prostituitutako emakumeak ez kriminalizatuz eta emakumeak prostituitzen dabezanak eta proxenetak kriminalizatuz, eskaera ezabatzeko), arrakasta ikusgarria izan da emakumeen sexu-esplotazioaren muntaren murrizketan. Seguruenik, politika abolizionistak hain emonkor gertatzearen eragile erabakigarria sexu-esklabotasunagaz amaitzeko benetako borondate politikoa izatea da, horretarako ezinbesteko diran bitartekoak eukiz. Borondate politiko barik, konponbiderako edozein proposamen, egingarri eta eraginkorra izanda be, ezebezean geratzen da.

Dana dala, sexu-esklabotasunaren alde edo aurka jarrera hartzeko, ezinbestekoa da gizonezkoek euren sexu-nahiak (eta ez beharrianak) asetzeko diru-akordioaren bitartez emakumez-koen gorputzak erabilteko eskubiderik daben ala ez argi eta garbi esatea. Hau da, trukean dirurik emon barik, mehatxu edo indarkeriaz baino 'lortuko' ez leukiezan gorputzak euren nahierara erabiltea bidezkotzat jotzen dan ala ez adierazotea.

Behin eta barriz esaten da ezinbestekoa dala prostituitutako emakumeei entzutea, prostituzinoan aritzeko daben balizko aukeraketa aitzakia hartzeko. "Balizko" hautaketa askea, izan be ez da gatxa –prostituzinoan aritzea aukera dan kasu bakanetan-, gorputza beste batzuen asetzeko eskaintza gure inguruan nagusi dan sistema patriarkalaren eraginak ez dauala baldintzatzen zalantzan jarrea. Gorputza saltzea, azken batean, norbere burua saltzea da, persona ezin dalako bere gorputzasunetik bereizi (horren adibide, prostituzinoak emakumeengan eragiten dituan egundoko ondorio fisiko eta psikologikoak).

Balizko aukeraketa aske horri lotuta, ezinbestekoa da sexuak onartutako edo baimendutako zerbait izan behar dauala kontuan hartzea. Baieztapen hau, arriskutsu samarra da: sexuak ez dau onartua izan behar (bakarrik), nahitakoa baino. Emakumeok ez geunke sexu-harremanak izatea onartu behar, izateko nahiak eragin beharko leuke onarpena.

Aparteko arreta merezi dau prostituitutako emakumeengan arreta jartera garoazan "putei entzun behar jake", argudio oso eraili horren atzean ezkututzen danari buruz hausnartzea. Beste behin be, patriarkatuak zorrozki esku-hartzen dau bere eragina ia nabarmendu be egin ez daiten: ontzat jotzen dogu, gaur egun be, emakumeok santa eta puta lez banatzea? Batzuei egiten deutsanak ez ete dau eragirik guztiongan? Ez daigun sekula ahaztu: bat ikutu ezkerro, danok ikutzen gaitue.



Iturria: AmecoPress. Información para la igualdad

Dana dala, arazoaren azalean geratuko gara prostituzinoa eskaintzatik ez ezik eskaratik sortzen dala ahazten badogu. Eskari horrek, gainera, gizonezkoaren, zehatz-mehatz prostituzinoa eragiten dauan gizonezkoaren, arpegia dauka. Françoise Heritierren berbak gogora ekarriz: emakumeek euren burua saltzeko eskubidea dabela esateak, gizonezkoek emakumeak erosteko eskubidea dabela ezkutatzea da. Prostituzinoa munduko ogibiderik zaharrena dalako hori irudikatzen dauan errealidadearen bidegabeko itxuragabetzea baino ez da: sekula ez zan ogibidea izan, indarkeria matxista da.

Galderak hausnarketarako:

- **Niri ez dagokidan kontutzat hartzen dot prostituzinoa? Ze ardura dot, gizon ala emakume izan, prostituzino-sistemaren legitimazioan? Prostituzinoa sexua izateko aukeratzat dabenei aurka egiten ete deutset? Santa eta puten arteko banaketa artifizial eta matxista hori egiten ete dot?**
- **Ze motatako ikaskuntzak emoten deutseguz gure alaba eta semei sexualitatearen eta norbere nahiak asetzeko beste gorputz bat eskuratzeko eskubidearen inguruan? Ze lotura ete dago pornografiaren eta prostituzinoaren artean?**
- **Unibersidade publikoetan, sexu bidezko lan lez ulertutako prostituzinoari buruzko eztabaida-saioak egiteko saiakerak izan dira. Gazteen heziketarako erakundeetan lekua euki beharko leukie honako planteamentuek? Ohartzen ete naz hori eztabaidagai jarreak izan leikezan ondorioez?**

LIBURUAK

- *Neoliberalismo sexual: El mito de la libre elección.* (Ana de Miguel)
- *La prostitución en el corazón del capitalismo.* (Rosa Cobo)
- *El ser y la mercancía: prostitución, vientre de alquiler y disociación.* (Kajsa Ekis Ekman)
- *El proxeneta.* (Mabel Lozano)

WEB BALIABIDEAK

- Web Plataforma [\[Hemen\]](#)
- Salvados Programa, 13 x 04
- A. Tiganus-en berbaldia [\[Hemen\]](#)